

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

MENDI BILUZIA

Nanga Parbatara egindako neguko lehen igoera

Kirol Astea

2020



Zk. 192 / Udazkena 2020 abendua
www.zizurkil.eus / 943 691012
 Ernio Bidea 9A, behe, 20159 ZIZURKIL

EUSKARALDIA

Herriko elkarte, komertzio eta taberna gehienek parte hartu dute ariketa sozial honetan eta, pandemiak mugatu badu ere, zizurkildarrek euskararen aldeko apustu garbia egin dute.



ZORIONAK ZIZURKILDAR GUZTIOI!
AURREKO EUSKARALDIKO PARTE HARTZEA GAINDITU IZANAGATIK!!!

EUSKARA

REPARTO DE PREMIOS

2020-12-18
 TEODORO HERNANDORENA XIX. IPUIN LEHIAKETAKO
 SARI BANAKETA
 17:30ean Atxulondo kultur etxean

KIROLA

NESKA ZATOZ KORRIKA!

Aitziber Ibarbiarekin ostiralero
 Otaño ikastetxeko frontoian 18:30etatik aurrera.

2020-12-19

UME JOLASAK

JUEGOS PARA NIÑ@S

herrian zehar 11:00etan. Herriko elkarteek antolatuta, HH eta LHko umeei zuzenduriko jolas desberdinak. Herrigunean eta Elbarrenan banatuko dira gunek eta izen-ematea derrigorrezkoa izango da, segurtasun neurri guztiak bete ahal izateko.

2020-12-19

GIPUZKOAKO TALDEEN HALTEROFILIAKO TXAPELKETA

CAMPEONATO DE GIPUZKOA DE HALTEROFILIA POR EQUIPOS
 16:00etan
 INTXAUR FRONTOIAN

KIROL ASTEA 2020

2020-12-20

“MENDI BILUZIA, Nanga Parbatara egindako neguko lehen igoera” filma
 Arantzazuko Amaren Elizan, 19:00etan, Alex Txikonen aurkezpenarekin.

POSTERRAK FIRMATZEN ARITUKO DA AURREZ, ZATOZ ZUREA JASOTZERA!



KULTURA

2020-12-11
HAIZEAREN EGIA
 filmaren emanaldia
 19:00etan Atxulondon.
 Ondoren, mahai-ingurua.



DIRU-LAGUNTZEN BIGARREN ZATIAREN ZURITZEA

JUSTIFICACIÓN DE AYUDAS

Udalak 2020 urtean eman dituen diru-laguntzen zuritzea egin beharko da, urtarilaren 30a baino lehen. Horretarako, diru-laguntza jaso duten taldeek urteko ekitaldien memoria eta fakturak aurkeztuko dituzte. Dokumentazio hori aurkeztu ondoren, Udalak diru-laguntzaren %25 ordainduko die.

EGUBERRIETAKO AZOKA BEREZIA

FERIA ESPECIAL DE NAVIDAD

2020-12-20

Goizeko 10:00etatik 14:00etara, bailarako artisau eta janari postuekin EGUBERRITAKO AZOKA BEREZIA antolatuko da Plazan. Herritarrak gonbidatu nahi ditugu Eguberrietako erosketak bertan egitera. Hamaika aukera izango dira bertako artisauen lanekin gertuko opariak egiteko. Bertakoaren alde egiteko aukera paregabea.

Eguberrietako azoka honetan jostailu trukea egiteko aukera egongo da. Atxulondo Kultur Etxeko areto nagusian jarriko dira trukeerako jostailuak.



JOSTAILU TRUKEAREN baldintzak:

- Azokara ekarri daitezkeen jostailuak ezaugarri eta adin guztietako haurrentzat jostailu, joko eta ipuinak izango dira eta egoera onean egon beharko dute (garbi eta desinfektatuak).
- Azokara jostailu edo jokoren bat ekartzen duen orok, jostailu hori utzi eta beste bat hartzeko eskubidea izango du, emango zaion txartelarekin.
- Haur bakoitzak gehienez 3 jostailu, joko edo ipuin ekar ditzake eta beste hainbeste jostailu, joko edo ipuin eraman ahal izango ditu.
- Jostailuak Udal Bulego edo liburutegian utziko dira abenduaren 9tik 16ra.

MATERIAL DEPORTIVO DE SEGUNDA MANO

Erabiltzen ez duzun kirol materiala duzu eta saldu egin nahi duzu?

- Ekarri materiala Udal Bulegoetara prezioa jarrita abenduaren 14tik 18ra.
- Materialak egoera onean egon beharko du eta garbia ekarri beharko da.
- Abenduaren 21ean materiala saldu bada, dirua jasoko duzu eta, bestela, materiala bueltatuko zaizu.

KIROL MATERIALAREN 2. ESKUKO POSTUA AZOKAN

TRUEQUE DE JUGUETES

OLENTZERO

HERRI OLENTZEROA

Egoera zail honetan ere, Olentzerok bere magia erabiliz, herriko umeei bisita egingo die. Olentzero eta Mari Domingi ikusteko modu desberdina izango da aurtengoa eta gurasoen laguntza eskatu nahi dugu finkatzen diren segurtasun neurri guztiak betetzen laguntzeko.

Ongi etorri Olentzero eta Mari Domingi!

Bitartean, abenduaren 19tik 24ra, liburutegiaren atean egongo den postontzian herriko haur guztiek beraien eskutitza botatzeko aukera izango dute. Azkar! Idatzi zure eskutitza eta ekar ezazu... Olentzero eta Mari Domingi zain dituzue eta...



ABENDUA

GABONETAKO EGIARAU BEREZIA



urtarrilaren 4 eta 5ean ADI EGON!

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON 2021!